



Juri
Zytsar

*Errusiako euskalaritzan
aitzindari*

1928-2009

BIDeGILEAK

Egilea:

Natalia Zaika



JURI ZYTSAR

(1928-2009)

(Iturria: Euskaltzaindia.
Azkue Biblioteka)

Juri Vladimirovitx Zytsar lehenengo euskaltzale eta euskalarietako bat izan zen Sobiet Batasunean eta Errusian, beharbada hango euskaltzalerik inportanteena eta euskalaritza eskola txiki baten sortzailea ere bai. Bere historia ikerketa zientifiko harri-garria eta ia fanatikoa izan zen, bizitza osoa zeregin horretan eman baitzuen. Zytsarrek azkeneko urteetan honela zioen: «Niretzat euskal arazoaren ebazpena ez da soilik nire bizitza osoko problema, baita bizirik irauteko arrazoia ere». Bere ikerketa zientifikoan aitzineuskarako konparaketei ekin zielarik, indoeuroparrak etorri arte Eurasiako beste herriek bizi izan zuten egoera berreraiki nahi zuen.





Bizitza-zertzeladak

Zytsar gaztea eta bere aita

HAURTZAROA

Juri Zytsar 1928ko apirilaren 14an jaio zen, Sobiet Batasunean, Siberian, Makuxino herrian, Irkutsk eskualdean. Bere gurasoak Penza eskualdeko nekazariak ziren, aita agronomoa zen, *sovkhos* (nekazaritza-entresa Sobiet Batasunean) batean zuzendaria eta ama diru-biltzailea. Umetan, familia amaren aldeko amonarekin bizi zen eta Zytsar txikiak denbora asko pasatzen zuen berarekin. Amona, Penza eskualdeko nekazaria jatorriz, analfabetoa zen.

Geroago aitak beste lanpostu bat aurkitu zuen Baryx herrian, bere anaia botikariaren ondoan, Kuibyxev (egun Samara)

eta Ulianovsken (egun Simbirsk) artean. 1936an, mutilak 8 urte zituelarik, bere amarekin batera, aitarengana joan zen. Toki hau Zytsarrek oso maite zuen eta beste leku batean jaioa zen arren, Baryx herria bere benetako aberritzat hartu zuen. Beste sovkhos batean bizi ziren, erreka, aintzira, muino, baso eta haran ikusgarri batez inguraturik. Biztanle gehienak analfabetoak ziren eta mutil txikiari 1936ko Espainiako gerla zibilari buruzko artikuluak irakurtzeko eskatzen zioten maiz. Sovkhoszeko biztanleen ia erdia jatorriz bertakoa zen: mordoviarrak eta txuvaxiarrak ziren, eta auzokide haiei esker Zytsarrek hitz eta esaldi mordoviar batzuk ikasi zituen txikitlan.

1941ean alemanen kontrako gerla hasi zen Sobiet Batasunean eta udazkenean sovkhozeko jende ugari frontera joan behar izan zuen; laster lehenengo heriotza-agiak heldu ziren. Eskolak hustu egin ziren: neskek uniforme militarrek josten zituzten eta mutilek fabriketan lan egiten, gerlara joandako jendea ordezkatzeko. Zytsarrek egunero 10 kilometro baino gehiago ibili behar zuten eskolara joan eta handik itzultzeko. Gerla denboran jende ebakuatu askok irakasle bezala lan egin zuen, gehienak ikasketa pedagogikorik gabekoak. Zytsar bizi zen tokian, errusiar hiri eta herri gehienetan nagusitzen ari zen gosea saihestu zuten sovkhozeko patatei eta azei esker, baina ogirik batere ez zuten. Hamahiru urte zituela Zytsarrek uzta-makinaz lan egin zuen oporretan, eta ondoko urtean bere etxetik hogeikilometrora zegoen sovkhos batera joan zen, makinista laguntzaile gisa jardutera. Ez zuen soldadu gisa frontea ezagutu: 1945ean, gerla bukatu zenean, hamazazpi urte baino ez zuen.

Zytsarrek berak bere zehaztasuna eta arreta handia nekazarien mundutik zetoziola pentsatzen zuen. Hala ere, bere



Zytsarren familia



Zytsar eta bere aita

izaeraren alde nabarmenena aurkikuntza handiak egiteko asmoa zen, eta helburu hau batzuetan mugarik gabeko erromantizismo bihurtzen zen hipotesi ausartenak aztertzeko, beste batzuetan bere ikasgaiaren eremua zabaltzeko (historia, literatura eta beste giza ikasgaiak oso ondo menderatzen zituen).

LENINGRADEN


Juri Zytsarrek Leningrad (egun San Petersburg) 1941ean bisitatu zuen lehen al-



Zytsar gaztea eta bere semea

diz. Bere amaren bi ahizpa gazteak Leningradeko unibertsitatean graduatuak ziren eta batak, Ural eskualdean lan egiten zuen irakaslea, oporretan Leningradera uda pasatzera joan zenean, bere iloba eraman zuen. Gudatea hasi zenean, hirian zeuden eta arazo handiekin itzuli behar izan zuten. Bere aitaren hiru anaiak gerlara joan ziren (mutilaren osaba bat almirantea zen). Garai hartan Zytsarren amaren ahizpa gaztea eta 1943an gerlan hil zen osabaren semea familiarekin bizi ziren.


Gerla amaitu eta gero, 1946an, eskola-ikasketak bukatu bezain laster, Zytsar berriaz Leningradera bueltatu zen itxaropen erromantikoaz beterik, bere izeba batekin, Itsas armadako eskolan sartzera. Bere ustez, arrisku handia hartu zuen, miopiagatik, astigmatismoagatik eta batez ere zientzia zehatzak maite ez zituelako. Aukera hau nahiko naturala zen 1928an jaio zen gazte batentzat, bere adiskide zaharrago asko, 1927an baino lehen jaioak, gerlan parte hartu eta han bertan hil zirelako. Bestalde, marinela militarra oso lanbide ospetsua zen eta, Zytsarren esanetan, neska gazteek, gainera, asko miresten zu-



Euskal fonemen sistema errusieraz

ten. Dena dela, espero zuen mirakulua ez zitzaion gertatu, bere ikusmen txarragatik baztertua izan zelako.

Horrenbestez, Zytsarrek letretako fakultatera jo zuen, baina dokumentuengatik denbora asko galdu zuen, iraila iritsi zen eta unibertsitatera sartzeko azterketak jadanik pasatuak ziren. Gazteak harrokeriaz ez zuen jaioterrira itzuli nahi izan, eta zuen diru apurrarekin Siberiako hiri batera joateko txartela erostea erabaki zuen. Maletak egiten ari zela, irratian entzun zuen Atzerriko Hizkuntzen Eskolan (egun Herzen unibertsitate pedagogikoa) bi sail berri, gaztelerazkoa eta suedierazkoa, sortu zituztela, eta ohi ez bezala azterketak irailan izango zirela jakinarazi zuten. Zytsarrek azterketa horiek gainditu



Euskal fonemen sistema georgieraz

eta ikasteari ekin zion. Hasieran suediera ikasi nahi zuen itsasontzi eta erromantizismorako zuen joeragatik, baina frontetik itzuli ziren gazte batzuekin topo egin zuenean gaztelera hautatu zuen.

Gerla bukatua zen. Sobiet Batasunean 25 bat milioi lagun hil ziren, hau da, biztanle-kopuruaren %10. Janaria erosteko kuotak kendu zituzten, baina prezioek sobera gora egin zuten. Ikasketa garaietan gose izaten zen maiz: egunero hiru aldiz patatak ogiarekin jaten zituen, institutuko jantokian. Batzuetan aitak Zytsarri kaxoi bat patata bidaltzen zion eta Zytsarrek eta berarekin batera ikasleen egoitzaren gelan bizi ziren beste lau adiskidek jaten zituzten. Juri eta bere lagunak oso gaizki janzen ziren, baina gazteak izaki ez zieten

etengabeko goseari eta bizitzeko baldintza ikaragarriei kasurik egiten. Zytsarrek Leningrad biziki maite zuen, eta berarentzat han pasatu zuen denbora funtsezkoa izan zen eta ikasketetarako zaletasun handia erakutsi zuen.

Juri Zytsarren lehenengo irakaslea Lucia L. Pokrovskaja izan zen (Espainiako gerla denboran itzultzaile gisa lan egin zuen marinel militarrentzat), eta bigarre-na G.V. Stepanov (gero Sobiet Batasuneko Zientzia Akademiako eta Espainiako Akademiako ohorezko kide izan zena); biak irakasle jakintsuak eta gaztelera ondo zekitenak. Stepanov Zytsarren benetako laguna bilakatu zen urte askotarako. Lehenengo urtean Zytsarrek Je. A. Bokarev kaukasiar famatuaren kurtsoak segitu zituen.

Hizkuntzalaritzan oso trebea zela erakutsi ondoren, bigarren urtean beka garrantzitsua —Stalin beka— lortu zuen. Baina bekadun zelarik, Komsomolean (Gazte Komunisten Erakundea) sartu behar izan zuen eta, betebehar horiek denbora asko kentzen ziotenez, ezin izan zuen frantsesa ikasten jarraitu.

Эванделистий утук

За покушани:

Сегодня среда. В среду после обеда госпожа Ласа выходит делать покупки. Сейчас (она) (разные) вещи покупает в Германю. Несколько булочек и хлеб покупает (она), — у булочника. Булочник продает хлеб и булки. Около лавки булочника находится магазин фруктовщица. Он (булка, "этот") продает (фрукты и овощи: яблоки, апельсины, груши, вишни, макусту, бобы (в стручках), лук и т.д. Фруктовщица также продает картошку. Госпожа Аурин, приятельница госпожи Ласа находится (или раз) в овощном магазине, (она) покупает несколько апельсинов. Сегодня нет в продаже (булка, "в покушани") в данный момент яблок и груш.

Euskarazko ikasgaia

Herzen institutuan atzerriko hizkuntza praktikei kasu handia egiten zieten, itzulpenari eta irakaskuntzari batez ere, teoria gramatikalei eta hizkuntzen historiari arreta berezirik jarri gabe. Leningradeko unibertsitatean, alderantziz, kurtso teoriko ugari izan zituzten, baina diplomadunek ezin zuten aise gaztelera egin. Hala ere, bekari esker Zytsar gaztea institutuan frantsesaz ere ongi jabetu zen.

Baina institutuan ikasten ari zela euskararenganako interesa piztu zitzaion, bere espezialitatea irakaslearena (ez hizkuntzalararena) izan arren. Bosgarren urtean ikasketak amaitzeko idatzizko lan bikaina aurkeztu zuen gaztelaren osagarri zuzenaren «a pertsonal» deritzon preposi-

zioari eta honen errusierazko eta errumaniarazko analogiei buruz. Lana aurkeztu eta gero Zientzia Akademan txosten bat egiteko eskatu zioten eta horrela hango hizkuntzalariak ezagutu zituen. Han lanean ziharduen Xixmariov hispanista famatuari euskarak «a pertsonal»-ean eragina izan ote zuen galdetu zion. Xixmariovek ezetz erantzun zion, baina euskara aztertzeke gogoari eutsi zion Zytsarrek. Elkarrizketa hau baino askoz lehenago

Zytsarrek Xixmarioven euskarari buruzko saioa irakurri zuen (1941ean Espainiako hizkuntzei buruzko liburuan argitaratua zen) eta galdera asko zituen. Denbora hartan euskara eta euskal ikasketak oso gutxi irakasten ziren Errusian. Lehenago, 1930eko urteetan, Leningradeko Estatuko Unibertsitatean Xixmariovek euskarazko kurtsoak antolatu zituen eta hango lehen irakaslea Sofia Bykhovskaia kaukasolaria izan zen.



Zytsarren ikasteko materialak

Gaztetandik Zytsarrek ez zion beldurrik arriskuari, zientzian beti berehalako arrakasta ematen ez zioten gaiak hautatu zituen eta bizitzako bere helburu nagusia aurkikuntzak ziren.

1950ean Zytsar Institutuan graduatu eta gero, ezinezkoa zen euskarari buruzko tesia idaztea, Stalinek Marren ikerketak kritikatu zituelako («Marxismoa eta hizkuntzalaritzaren arazoak» artikulu famatua). Bestalde, zailtasun bereziak zituen, Sobiet Batasunean Euskal Ikasketen doktoregoa ez baitzen existitzen.

Testuinguru honetan Nikolai Marr hizkuntzalaria aipatu beharko genuke. Kau-

kasolari eta orientalista horrek euskara-kaukasiar senidetasuna frogatzea kaukasolarien lan hipotesi nagusia eta problemarik inportanteena zela uste zuen. Bere funtsezko lana *Euskararen jatorri jafetikoaz (О яфетическом происхождении баскского языка)* zen, 1920an argitaratua. Bere izenari lotuak daude euskal ikasketak Sobiet Batasunean XX. mende-

aren hasieran. Euskara-kaukasiar hipotesia hizkuntzen antzekotasun tipologikoan oinarritu zen maiz (ergatiboa, aditz pluripertsonala, zenbakien sistema berezia, etab.), senidetasun genetikoa frogatzeko, paralelismo lexikoen ordez. Zytsarrek berak uste zuen Marren etimologia asko oinarririk gabekoak izan zirela, adibide gutxiegi aztertu zituela eta Marr sarritan oker zebilela. Hala ere, Marren etimologiei kasu handirik egin ez arren, Zytsarrek hamarkada batzuk geroago, 1987an, bere artikuluaren bilduma *Баскско-кавказские лексические параллели (Euskara-kaukasiar paralelismo lexikoak)* izenpean argitaratu zuen.

Zytsar institutuan gaztelera irakasten hasi zen filologia espainoleko katedran. Ez zitzaion erraza gertatu lehenengo urtea, batez ere hizkuntzalaritza orokorraren hastapenak azaltzea. Urte asko geroago, bizitza guztian lanbide horretan jardun ondoren, gaztetan oso irakasle txarra izan zela aitortu zuen. Bere ustez, ikasleei atzerriko hizkuntza batean hitz eginarazi nahi denean, ia beti isilik egon behar omen da, hitz-jarioa geldiarazi gabe. Metodo

MOR			MORI		
NI	NA-	TOR-	-KIT(-KIDA)		
HI	HA-	OA-	{-KIK(-KIA)}		
BERA	DA-	GO-	{-KIM(-KIMA)}		
GU	GA-		-KIO		
ZU	ZA-	BIL-	-KIGU		
zuek	ZA-	TZA	-KIZU		
HAIK	DA-		-KIZUE		-te
			-kie		

MOR			MORI NORK		
NI	NA-	-KAR-	-KIT(KIDA)	-T	
HI	HA-	-RAMA-	{-KIK(-KIA)}	-K	
		-RABIL-	{-KIM(-KIMA)}	-N	
BERA	DA-	-KUS(A)-	-KIO	-∅	
GU	GA-	-KI-	-KIGU	-GU	
ZU	ZA-	-TZU-	-KIZU	-ZU	
zuek	ZA-	-ZAGU-	TZA	-KIZUE	-zue
		-UK(A)-	(zTe)(Z)	-kie	-te
HAIK	DA-		↑		
			↑		

Plural Plural
(Plurales)

Zytsarrek moldatutako taula gramatikalak



Zytsarren liburutegiaren irudi bat

hau eta metodo sobietar arrunta, ariketa askorekin eta etengabeko zuzenketekin, erabat desberdinak ziren. Bere ustez, jakintza transmititzea erraza zen kalean eta zailagoa klasean. Irakasle garai hartan Zytsarrek bizileku bat bilatu behar izan zuten, ez zuelako eskubiderik bere institutuko ikasleen egoitzan bizitzeko.

1951ko udan bi doktorego ikasketa eskaini zizkioten Zytsarri. Stepanovek, bere irakasle maiteak, Herzen institutuan, eta Xismariovek Sobiet Batasuneko Zientzia Akademian. Irakasle gazteak, zalantza handiak izan arren, bigarren aukera hautatu zuen. Horrela, ikasleen egoitzan bizi ahal izan zen, bere idazmahaiarekin, lanpararekin eta gelakide gutxirekin.

Denbora hartan Leningraden, Bilboko eta Espainiako herri batzuetako gazte ebakua-tuen elkarte bat zegoen, *Gernikako seme-alabak* izenekoa. Normalean Leningradeko Ingeniari militarren institutuan ikasten zuten eta Zytsar noizean behin joaten zitzairen berriketan aritzera. Gazte gehienek, jatorriz Euskal Herrikoak ziren arren, gazteleraz oso ondo zekiten eta egunero hitz egiten zuten, baina euskaraz batere ez. Batzuek hitz eta esaldi batzuek gogoratzen zituzten, besterik ez. Zytsarrek, tesiari ekin baino lehen eta gaztelera irakasten ari zela, euskara aztertzea erabaki zuen, nahiz eta bere Euskal Herriko lagunek euskara ikasteko eta aztertzeko asmoa kendu nahi zioten, zailegia zelakoan.

Zytsarrek euskara ikasteko eta irakasteko erabili zuen liburua






Nafarroako Gobernuaren eskutitza

Stepanovek, bere lehenengo zuzendariak, euskara ikastean georgierari kasurik ez egitea ezinezkoa zela esan zion, eta bere ustez, hipotesi kartvelikoak soilik (euskara eta hizkuntza kartvelikoak jatorri berekoak omen direla dioenak) merezi zuen azterketa.

Baina beste hizkuntzalari batzuek (Desnitskaiak, esaterako) hipotesi hori bereziki aztertzeke asmoa kendu nahi zioten, hizkuntzen arteko ahaidetasuna dagoenean, berehala nabaritzen dela azpimarratuz. Zytsarrek ondo ulertzen zuen hizkuntza indoeuroparren senidetasuna argi-argia zela inolako zalantzarik gabe. Baina, beste aldetik, bere ustez, euskararen eta geor-



«Bat»-i buruzko artikuluaen eskuizkribua

gieraren senidetasuna askoz urrunago bilatu behar zen.

Doktorego ikasketak hautatu zituenean euskara aztertzeke aukera behar-beharrezkoa zen. Stepanovek Zytsarren euskarazko egitasmoak onartu zituen, baina behin eta berriro zioen Zytsarrek euskararen eragina gazteleraizko hitzetan aztertu behar zuela. Xixmariovek, ordea, euskara eta gazteleraizko arteko paralelismo lexikoak aztertzea gomendatu zion. Honela, Zytsarrek bere bi irakasleen gomendioari jarraitu zion, baina hizkuntza erromanikoen eragina euskararen ikertzea erabaki zuen, gazteleraizko euskarazko elementuen eraginaren ordez.

Tesia idazten ari zela, Zytsarrek *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkari famatua eta R. Menéndez Pidalen obrak irakurri zituen eta euskara praktikoa ikasten aritu zen. Euskara bakarka ikasi behar izan zuen, Sobiet Batasunean ezagutzen zuen euskaldun bakarra, J. M. Etxenike izeneko jauna, Moskun bizi baitzen. Zytsarrek bizpahiru aldiz bakarrik ikusi zuen. Tesi zuzendariak ezin zion lagundu, ahozko hizkuntza ez zekielako ondo, eta administraziotik zetozkion betebeharrak ere (lanpostu inportantea zeukan) denbora asko kentzen ziotelako.

Sobiet Batasunean georgiera aztertzen zuten hizkuntzalariak eta erromanistak ere euskal ikerketan aritzen ziren, beharbada latinetik eta hizkuntza erromanikoetatik hartutako mailegu ugariak zirela bide. Euskal ikasketak herri hartan ez ziren oso hedatuak eta ikertzaile gehienek gaztelanian eta frantsesean euskararen eraginak utzitako aztarnetan zuten interesa, batez ere.

1955ean Zytsarrek bere doktorego-tesia aurkeztu zuen Leningraden, atzerriko hizkuntzan lehenetarik bat. Tesiaren gaia oso

К проблеме сохранения языка
басков

Теме настоящей статьи была в свое время посвящена значительная часть моей диссертации (Ю.В.Зыцарь.К проблеме соотношения исконного и романского элементов в баскском словаре.АКД.Д.,1955), затем в 1964 г.на эту же тему состоялся мой доклад в Ин-те Истории АН СССР в Москве,повторенный позже в испанской аудитории в Москве же в присутствии т.Д.Ибаррури,о котором был напечатан отчет в "Аррагоа.Журнале баскской культуры и политики"⁺,впоследствии,в 1974 г.еще раз перепечатанный с несколько неожиданными комментариями.⁺⁺


После этого я к данной теме не возвращался и не печатал ни относящийся к ней обширный материал той же диссертации,ни текст указанного доклада,а отчет о нем,дважды напечатанный по-испански,ни разу не был издан на русском языке.Вся эта тематика,как и различная другая,мною,можно сказать,запущена.

Zytsarren euskarari buruzko artikulua («Euskararen iraupenaren inguruan»)


eztabaidagarria izan zen: *Jatorrizko elementuen eta elementu erromanikoen arteko harremanak euskarari (Соотношение исконного и романского элементов в языке басков)*. Aurkezpena Stalin 1953an hil eta gero gauzatu zen, Khrustxovek, Sobiet Batasuneko buruak, Stalinen jokabidea kritikatu baino lehen. Bere bizitzako oroitzapenetan Zytsarrek honako hau idatzi zuen: «Stalinek Marri egin zion kritika garai hartan hain fresko zegoen, ezen euskara-kaukasiar senidetasuna doktorego-tesian lotsati aipatu nuela eta bakarrik urrutiko etorkizun baterako, erabat konplikatu zuen nire defentsa eta zalantzan jarri ez bazuen, zuzendariaren parte hartzeari esker izan zen, Stepanov eta Desnitskaia aurkariei esker» («Lehenago eta

gaur egungo euskaltzetasuna Georgian eta Errusian (lehenengo zatia)», *Gernika* 2008 N^o3, www.gernika.ru). Tesia aurkezten ari zelarik, hipotesi hau Marr baino lehenago agertu zela azpimarratu zuen, Marren emaitza garrantzi handirik gabekoa zela. Eta denek Zytsarri baiezkoa eman zioten; batek bakarrik uko egin zion bozkatzeari. «Geroago, marrismoaren akatsa leporatu zidaten, zorionez, ez marasmoena», zioen txantxetan.

Urte haren bukaeran Sobiet Batasuneko *Вопросы языкознания (Hizkuntzalaritza arazoak)* linguistika-aldizkari nagusian artikulua bat argitaratu zuen, euskara eta georgieraren artean aurki litezkeen paralelismo lexikoei buruz, kideetasun terminoetan eta beste funtsezko hitzetan oinarrituz. Bere ondorio nagusia hau da: euskara-kaukasiar ahaidetasuna posiblea dela. Ezin da ezeztatu senidetasun hori dagoenik, ezta baieztatu ere. Zenbait hamarkada geroago euskara-kaukasiar senidetasuna ez zela arazo nagusia idatzi zuen. Beretzat euskal ikerketen helburu nagusi hitzegi etimologikoa eta euskalkien gramatika konparatua egitea bilakatu zen.




Henrike Knörren mezua



Jacques Allieresek Zytsarri bidali zion artikulua

PROBINTZIAKO BIZITZA

Tesia aurkeztu eta gero Juri Zytsar egoera ekonomiko larrian egon zen. Lehenago, institutuan ikasten zuelarik, bere aitak lagundu ahal zion, noizbehinka zaku bat patata bidalirik, baina, jubilatuta eta gero, aitak semearen laguntza behar zuen,



Zytsarren euskarari buruzko artikulua («Euskararen gaia ikuspegi historikotik»)

pentsioa txikiegia zelako. В. А. Сербренников Sobiet Batasunako Zientzia Akademiako kide urgazleak gorago aipatu den *Вопросы языкознания (Hizkuntzalaritza arazoak)* aldizkarian Mendebaleko Europako saileko arduradun lanpostu bat eskaini zion, Moskun, Zientzia Akade-

miako Hizkuntzalaritza institutuan. Baina etxebizitzaren arazoa ezin zen konpondu, Zytsarrek Moskun apartamenturik ez zuelako. Garai zail hartan amama maitea hil zitzaion, emaztea haurdun zegoen eta familiako beste arazo batzuek aurrera egitea eragozten zioten Zytsarri.

Leningraden geratzea zaila zen, ez zeukan lanposturik, nahiz eta ikertzaile asko prest zegoen doktore gazteari laguntzeko. Baina denbora berean probintziako unibertsitate eta institutu askok lan egiteko proposamenak egin zizkieten, soldata handiagoekin; hizkuntzalariak idatzi zuen bezala: «Honek nire eguneroko problema guztiak konpondu behar zituen». Zy-



Zytsar Vietnamen

tsarrek, asko pentsatu gabe, Oriol, gerlan erabat errausturiko hiria, hautatu zuen eta hango unibertsitate pedagogikoan hizkuntzalaritza, latina, eta beste hizkuntzak irakatsi zituen. Hara bere emaztea eta seme jaio berria joan zitzaizkion. Urte bat geroago Zientzia Akademian lanpostua eskaini zioten, baina familiako egoera zailarengatik eta bizitokirik ez izateagatik ezetza eman behar izan zuen.

Leningradera bere euskarari buruzko artikulua bidaltzen jarraitu zuen. Zytsarrek bere kontsolamendu bakartzat hartzen zuen, irakaskuntzak ez ziolako atsegirik ematen, dirua besterik ez: «nire bizi-zako aldi luzeena eta grisena batera hasi zen». Gerla ondoko probintziako Oriolen zientzialariaren aukerak erabat mugatuak baitziren. Handik gutxira, 1960an, Zytsar bere familiarekin Vietnamera, Hanoira joan zen, errusiera eta frantsesa irakastera, irakasle asko bezala; denbora hartan Sobiet Batasunak interes politikoak zituen lurralde hartan. Vietnamen domina jarri zioten eta hango Akademiaren ohorezko kide izendatu zuten. Itzuli bezain laster, gurasoak bizi ziren Kuibyxevera (egun Sama-

ra) joan zen 17 urtetarako. Medikuntza institutuan eta gero institutu tekniko baten atzerriko hizkuntzen katedrako zuzendaria izan zen. Frantsesa, ingelesa eta gaztelania irakatsi zituen, SESBtik kanpora lan egitera joaten ziren ingeniarietara kurtsoak ematen zizkien eta Errusiako goi-mailako hezkuntza ministerioan atzerriko hizkuntzen kontseiluko kide izan zen.

1960ko hamarkadaren erdian Zytsarrek euskaldunak eta Euskal Herria aztertzen zituzten Moskuko etnografoak ezagutu zituen eta txosten batzuk egin zituen Moskun; geroago txosten haiei buruzko artikulua *Arragoa* eta *Sancho el Sabio* aldizkarietan argitaratuak izan ziren. Batzuetan Georgiako eta Kaukasoko beste leku batzuetako zientzialariak joaten zitzaizkion aholkua eskatzera.

Zytsar euskaltzale bilakatzea, ziur aski, Euskal Herriko hizkuntzalariekin harremanik izan gabe ezinezkoa zitekeen. Honela, Koldo Mitxelenarekin eskutitz-trukea egiten hasi zen 1967an eta urte askoan iraun zuen, gerla hotzeko garaiak izan arren. Zytsarrek bere lehenengo artikulua *Fontes Linguae Vasconum* aldizka-



Herzen unibertsitate pedagogikoa

rian Mitxelenari eskaini zion eta geroago han bertan beste 22 artikulua argitaratu zituen 1976tik 2005era (batzuetan beste zenbait idazlerekin batera), eta lan haien atal bat Zytsarren eta Mitxelenaren arteko eskutitz-trukea da.

Zytsarrek idatzi bezala, «V. F. Xixmariov eta G. V. Stepanoven ikasle nintzen garaitik, nire irakasleak ziren arren, eta haienganako nire maitasuna eta nire errespetua aldatu ez den arren, euskaltzale profesionala, gaur egungo mailan, bihurtu nintzen, nik uste, bereziki Koldo Mitxelenak bere gutunekin eta bidaltzen zidan literaturarekin» («Koldo Mitxelenaren erretratu eta biografia heroikoa (bigarren zatia)», *Gernika* 2009 N°1, www.gernika.ru). Hizkuntzalari haren eraginari esker, Zytsar euskararen ergatibotasuna aztertzen hasi zen.

Correspondencia Zytsar / Michelena

YURI VL. ZYTSAR*

CARTA DE YURI VL. ZYTSAR A LUIS MICHELENA

15-II-1967

Querido y respetado sr.

Soy profesor de español en uno de los institutos de Kuybyshev y durante los, más o menos, últimos quince años me dedico al estudio científico de la Lengua Vasca, a la cual consagré mi tesis doctoral (Leningrado 1955) y he elaborado varios artículos, de los cuales le envío la reseña. De los científicos que usted probablemente conoce tengo relación con el sr. Bosch Gimpera y I. Hubschmidt, también tuve un encuentro con el antropólogo barcelonés X. M. Basabe Prado.

Hace bien poco que he recibido y leído con gran placer dos libros suyos: «Sobre el pasado de la Lengua Vasca» y «Textos arcaicos vascos». Ambos me son muy valiosos. En el primero recibimos una colección de materiales muy importantes para la investigación histórica de la Lengua Vasca –además este material está perfectamente presentado y comentado por usted– y el segundo libro abre el acceso más sencillo al estado actual de la problemática fundamental de la vascológia y, así lo entiendo, puede ser considerado como la mejor introducción a la vascológia moderna.

A usted posiblemente no le será indiferente el hecho de que aquí, en nuestro país, ahora se habla de cimentar y consolidar el principio de la investigación sistemática en el campo de la Lengua Vasca, para lo que yo, personalmente, consideraría necesario que antes de nada fueran traducidos y editados en ruso:

* St. Petersburg.

FLV-n argitaratutako Zytsar eta Mitxelenaren arteko gutun-trukea

Hori baino lehen, 1958tik, Zytsar René Lafonekin gutun-harremanetan zegoen eta hizkuntzalaritzari buruzko argitalpenak elkarri bidali zizkioten. Sobiet Batasunetik Mendebaleko Europara bidaia-tzea ezinezkoa zenez, Zytsarrek telegrama bidali zion Lafoni L. L. Bonaparte omen-tze aldera, Euskal Ikasketen Batzarrera. Lafonek, beste garai hartako euskaltzale askok bezala, kaukasiar hizkuntzak, batez ere kartvelikoak, aztertzen zituen. 1967an René Lafon Sobiet Batasunera joan zen, Tbilisira, euskal aditzari buruzko konfe-rentziak ematera eta Zytsar, jakina, Geor-giako hiribururaino iritsi zen.

Bere bizitzako beste gertaera garrantzitsu bat Dolores Ibarruri ezagutzea izan zen. 1966an Zytsarren txostena entzun ondo-ren, burukide bizkaitarrak hizkuntzalaria-rekin zuzenean hitz egin zuen.

GEORGIAN

1976an Tbilisiko unibertsitateak (Geor-giar Sobietar Batasuneko Errepublika, egun Georgia) katedratiko lanpostua es-kaini zion, euskarari eta euskal kulturari



Tbilisiko unibertsitatea



Juri Zytsar eta Xota Dzhidzhiguri hizlari Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietan, Leioako Unibertsitatean (1980-08-28)
(Iturria: Euskaltzaindia. Azkue Biblioteka)

buruzko tesien zuzendari gisa. Zytsarrek, ia 50 urte zituen arren, berehala jo zuen hara bere emazte eta bi semeekin eta hantxe 15 bat urtez lan egin zuen, Sobie-tar Batasuna desagertu zen arte: lehenik georgiera katedran, irakasle bezala, eta

gero georgiar kulturaren historiaren katedratiko gisa. Euskara irakatsi zien euskara doktoregaiei eta hautazko ikasgai bezala ikasketa klasikoetako eta kartveliar departamenduko ikasleei. Gero tesiak aurkeztu zituzten doktoregai gehienei gaztelerera ere irakatsi zien eta haien zuzendaria izan zen.

Zytsarrek bi kurtso berezi antolatu zituen: «Euskara eta hizkuntza kartvelikoak: on-



Xabier Kintana, Jan Braun, Antonio Tovar eta Juri V. Zytsar (ezkerretik eskuinera), Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietan, Getarian (1980-05-29) (Iturria: Euskaltzaindia. Azkue Biblioteka)

torioak eta konparaketak (gaur egungo egoera)» eta «Euskal eta georgiar kulturak (parekatzea)». Sobiet errepublika honetan bizi zelarik, euskal ikasketen lehendabiziko eskola georgiarra sortu zuen eta maitezuten ikasle ugari izan zituen. Era berean georgiera nahiko ondo ikasi zuen, nahiz eta ez zuen erraz hitz egiten. Georgian urte batzuk eman ondoren, Zytsar euskara irakasten hasi zen Tbilisiko Estatuko Atzerriko Hizkuntzen institutuan. Georgiako beste hiri eta herri batzuetan ere euskarari buruzko hitzaldiak eman zituen.

1980an Zytsar Bilbora joan zen Euskaltzaleen Nazioarteko Biltzarrera georgiar delegazioren partaide bezala (garai hartan Batasunean euskara-kaukasiar senidetasunarekiko interesa berpiztu zen). Bere lehenengo eta azkeneko egonaldia izan zen Euskal Herrian, baita Koldo Mitxelenaekin zuzenean hitz egiteko eduki zuen aukera bakarra ere. Sobiet Batasunean atzerrira joatea ez zen erraza. 1989an beste bidaia bat egin nahi izan zuen Euskal Herrira, hiru hilabete pasatzera, baina arazo burokratikoengatik ezinezkoa gertatu zitzaion.

Georgian 1988an liburu bat argitaratu zuen, *Реконструкции в области баскского языка (Euskarari buruzko berreraiketak)* euskal aditz eta izenen berreraiketari buruz. Filosofia arazoak ere interesatzen zitzaizkion, esate baterako, 1984an «О единстве сознания и различиях языков» («Kontzientziaren batasunari eta hizkuntzen desberdintasunari buruz») artikulua argitaratu zuen.

Tbilisiko unibertsitatean doktoregaiek ez zuten bakarrik euskara praktikoa ikasten; artikulua zientifikoak ere irakurtzen zituzten hizkuntza desberdinetan. René Lafonen artikulua itzuli zituen frantsetik errusierara eta hizkuntzalari gazteei esker 1984an haren artikuluen bilduma *Система баскского глагола - Euskal aditzaren sistema* argitaratua izan zen (biltzailea eta hitzaurrearen egilea Juri Zytsar zen). Urte batzuk lehenago bere ikasle batek, Natela Sturuak, Antonio Tovarren *La lengua vasca* itzuli zuen. Zytsarrek eta bere ikasleek euskal poesia eta literatura errusierara eta georgierara itzultzen zituzten. 1991n Natela Sturuak eta Salome Gabunia *Антология баскской поэзии (Euskal*



Xabier Kintana (erdian) eta Juri Zytsar (eskuinaldean lehena), Georgia Zientzia Akademian bilera egiten, Georgiako Tbilisin (1988-05) (Iturria: Euskaltzaindia. Azkue Biblioteka)

poesiaren antologia) izeneko liburu argitaratu zuten. Zytsarren zuzendaritzapean ikasle batzuek euskal gramatikari, euskara-kaukasiar konparaketari eta hizkuntza tipologiari buruzko doktorego-tesiak defendatu zituzten.

Georgian bizi zelarik, Zytsar Euskal Herriko ikertzaileekin harremanetan jarri zen. Esate baterako, Xabier Kintana noiz edo noiz Georgiara joaten zen.



Zytsarren Georgiako nortasun-agiria

Zytsarrek Antonio Tovar eta bere familia ere ezagutzen zituen. Batzuetan bere kide euskaldunen konferentziak errusiarara itzultzen zituen. Georgian bizi zelarik, gure hizkuntzalariak errusiera ondo zekien P. Yrizarrekin batera artikulu bat idatzi zuen (Zytsar, Ju. Vl., Yrizar, P. de, «Los trabajos sobre el verbo «izan» y sus comparaciones» // *Euskera* XXIX (1984)). Zoritzarrez, argitaratzeko prest zeuden Zytsarren lan ugariak, baita euskara-errusiera-georgiera hiztegia ere, baina ez ziren kaleratu argitaletxean izan zituen arazoengatik.

1990ean, horrenbeste errusiarrek Georgia Errepublikatik alde egin zutenean, Zytsarri bere Tbilisiko lau gelako etxebi-

zitzaren truke hiru geladun komunal bat (beste bizikide batzuekin partekatu behar baitzuen) eman zioten San Petersburgen, eta bere familia (emaztea eta 35 eta 20 urteko bi semeak) ondasun guztiekin Errusiako bigarren hiriburu honetara bidali zituen. Hizkuntzalariak Tbilisin lanean jarraitu zuen eta 1991n lan arazoengatik Leningradera itzuli zen. Denbora har-



Juri V. Zytsar

tan, Batasuna desagertu zenetik, Georgia beste errepublika sobietar batzuekin batera estatu independente bilakatu zen. Georgian gerla zibila lehertu zenean, itzultzea ezinezkoa zen, eta Zytsarrek ezin izan zituen bere laneko dokumentuak jaso Georgiatik. Gauzak honela, hilabete batzuetan lanik aurkitu ezin izan zenez gero, 1992ko martxotik aurrera San Petersburgeko Unibertsitate Teknikoan irakasten hasi zen. Zytsarrek Georgiatik alde egin zuenean, hango euskal ikasketak laster ahultzen hasi ziren.

ERRUSIARA ITZULTZEAN

San Petersburgera bueltatu behar izan zuen eta Unibertsitate Teknikoan urte batzuez, 1995 arte, irakatsi zuen. Gero erretiratu egin zen, baina zientzia-arloan jarraitu zuen. San Petersburgen Espainiako, Georgiako eta Errusiako doktoregaiei laguntza eman zien. Azkeneko urteetan euskal kongresuetara gonbidatu zuten maiz, baina osasun arazoengatik ezin izan zen joan. 1992an Euskaltzaindiko oho-rezko euskaltzain izendatu zuten.

Guztira, 100 lan baino gehiago argitaratu zituen Zytsarrek Errusian eta 40 baino gehiago atzerrian, haietako asko *Fontes Linguae Vasconum* eta *Euskera* aldizkarietan, eta beste bat Euskaltzaindiaren Iker bilduman.

Juri Vladimirovitx Zytsar 2009ko ekainaren 23an hil zen San Petersburgen eta Baryx bere herri maitagarrian ehortzi zuten, gurasoen ondoan. Bi semeak eta ilobak San Peterburgen bizi dira orain arte.



Zytsarren 1988ko liburua («Euskarari buruzko berreraiketak»)



Sobre la categoría del
acontecimiento en los
idiomas, incluido el vasco (I)

VU. VI. ZYTSAR

Interes zientifikoak

Zytsarren artikulua *FLV*-en (1994)

Juri Vladimirovitx Zytsarren zeregin inportanteena euskararen historia eta berreraiketa izan zen eta, bere ustez, hau hizkuntzalaritzaren arazorik intergarriena zen. Euskarak ez du korpus handirik, grezierak edo latinak bezala, baina Zytsarrentzat euskararen arkaismo paregabeak testu zaharren balioa du. Euskal etimologietan interes berezia zuen Zytsarrek, eta hizkuntza berre-riketa hizkuntzaz kanpoko alderdiei, batez ere etnografikoei, ekonomikoei eta arkeologikoei, lotzen saiatu zen. Lan horien ondorioz artikulua dozena batzuk, konparaketa eta ideia ugariekin, argitaratu zituen.

Gramatika arloan ergatiboa interesatu zitzaion bereziki, euskararen eta beste hizkuntzetan, haren egitura, esentzia eta jatorria. Gai horri buruzko funtsezko artikulua, «Sobre la categoría del acontecimiento en los idiomas, incluido el vasco», *Fontes Lingvæ Vasconum*-en 1994an argitaratu zen, baina bere ergatiboaren interpretazioa ez zen kontuan hartu. Horretaz gain, aditz alokutiboa, jokabidea, deklinabidea eta galdegaia aztertu zituen. 1989an hizkuntza desberdinetan zenbatzaileek duten jatorriari buruz liburu bat idatzi zuen, V. Ju. Zytsar arkeologoarekin (bere semearekin, hain zuzen) eta D. M. Dzhindzhikhadzekin, *Пути возникновения и развития счета* (*Zenbatzaileen jatorri eta*

Obra zientifikoa ez ezik, euskara eta euskal kulturari buruzko artikulua zientifikoa «popularrak» ere argitaratu zituen Zytsarrek, egunkari eta aldizkarietan. Bizitzaren amaieran Karlos Arbide lagun euskaldunarentzat bere biografia idatzizuen gazteleraz hiru zatitan: 1. *Albores de la vida* 2. *Juventud*. 3. *Posgraduado* (ez zen argitaratu). Biografia honetan bere

haurtzaroaz eta gaztaroaz dihardu. Bere azkeneko urteetan beste hizkuntzalariei buruzko oroitzapenak idazten hasi zen.

Juri Zytsarren ikasle batzuek euskara eta euskal testuak aztertzen jarraitzen dute eta euskara-kartveliar arazoari, euskal etimologiari eta hizkuntza tipologiari buruz artikulua asko idatzi dituzte.

Hacia la teoría e historia de los sistemas de numeración (decimal y otros). III

VLADIMIR ZYTSAR*

Este artículo es el tercero y último de la serie publicada con el mismo título que encabeza el trabajo.

En la primera parte se propuso la concepción estructural y funcional de los sistemas de numeración (SN), que básicamente consta de tres partes: *raíz, tronco y copa*.

La segunda parte somete a análisis la estructura del sistema vigesimal, estudia en profundidad la procedencia de la regla de precómputo (RP), y muestra el carácter universal del cómputo mudo en base a los veinte dedos, como origen del RP-20.

La exposición referente al *cómputo mudo* no quedó concluida en aquella segunda parte, y se vuelve a abordar ahora. Este trabajo se propone:

- Considerar los vestigios del RP-20 y, en general, del precómputo vigesimal en las lenguas paleoasiáticas y algunas europeas.
- Analizar el carácter y la procedencia de la parte vigesimal del cálculo francés.
- Estudiar el problema de los números básicos (NB) de la copa del sistema numeral vigesimal (SN-20).

I

Volvemos, por tanto, al problema del CM («cómputo mudo»), como fuente para RP-20 > SN-20 etc. A más de los rasgos suyos evidenciados ya por su propia característica y denominación (el límite 20, el empleo de todos los dedos humanos, carácter «mudo»), el CM tiene también un rasgo que es-

* St. Petersburg.

1. FLV 72, 1996, pp. 209-221.
2. FLV 73, 1996, pp. 387-398.

Zytsarren artikulua FLV-n

Notas etimológicas: vasco ezker, español izquierdo

YU. VL. ZYTSAR*

A la memoria imperecedera de don Ramón Menéndez Pidal, de cuya escuela fecunda hemos salido tantos vascoólogos e hispanistas.

Autoconfección: En mi juventud, mis maestros rusos los académicos V. F. Shishmarov y G. V. Stepanov querían que, a base del idioma vasco, hiciera yo algo sobre la historia del español. Sin embargo, únicamente ahora, medio siglo más tarde, me he decidido a ello. Y es que el vucuece, tan "nuestro", y tan familiar en España, exige mucho. Diría, incluso, que lo exige todo, de manera especial como base para investigar precisamente otro algo que él mismo.

Al tema de este artículo está ya dedicada toda una literatura especial, pudiendo constituir una edición aparte el artículo correspondiente del gran diccionario etimológico del famoso Joan Corominas. En estas condiciones yo no puedo, naturalmente, pretender aquí hacer mi propio resumen de esta literatura y veo la salida en atenerme al resumen hecho por el propio J. Corominas en su diccionario menor *I*, p. 340f. Citaré este resumen.

Izquierdo, -a: 1142 (*exquerdo* 1117). Vocablo común con el portugués (*esquerdo*), catalán (*esquerre*), gascón (*querr* o *esquerr*) y languedociano (*esquer*, -*rra*). Del mismo origen que el vasco *ezker*(*r*) id. Probablemente procede de una lengua prerromana hispano-pirenaica, y es verosímil que el vocablo se extendiera desde una zona de lengua vasca en la época visigótica. En vasco el modo de formación del vocablo es inseguro; quizá de un híbrido del vasco *esku* "mano" con el céltico *kerros* "izquierdo" propte. "torcido" (irl. ant. *cerr*). El fenómeno del paso de una lengua a otra, que se advierte repetidamente en la historia de esta palabra, se explica por el deseo de cambiar un vocablo que en la conciencia popular tiende a envolver la idea de "mal agüero".

De acuerdo con las palabras concluyentes de esta cita el aspecto semántico del problema está, pues, íntimamente ligado con el mundo de augures y

* St. Petersburg

Abreviaturas: i-e, indoeuropeo. Prei-eos, preindoeuropeo.

Zytsarren beste artikulua bat FLV-n

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkiete pertsona hauei:

- Juri Zytsarren familiari
- Nere Altunari (Euskaltzaindia. Azkue Biblioteka)

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2012ko martxoan
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
ISBN: 978-84-457-3197-0 (Lan osoarena)
978-84-457-3199-4
L.G.: VI 160-2012

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística